

IRAUPEN
LUZEKO ZAINKETAK
PERTSONALIZATZEKO
JARDUNBIDE EGOKIEN
AINTZATESPENAK



BIZITZA AUTONOMOAGOA ETA
OSOAGOA IZATEKO IRTEERA-
PROGRAMA PERTSONALIZATUAK

SAN ANDRÉS EGOITZA.
ERAKUNDE KUDEATZAILEA:
ANTEPEYA 2002 S.L.

A ARDATZA: ARRETA ETA BIZITZA PERTSONALIZATUKO PLANA

San Andres egoitzak Galdakaon daude, Zuazo eta Usansolo auzoetan. Usansoloko egoitza (27 plaza) ia bizikidetza-unitate bat da berez. Zuatzun (43 plaza), zentroa 2 unitatetan banatu dugu, gaitzea helburu duen giroa eta arreta eskaintzeko. Horretarako, erabateko buelta eman diogu pertsona bakoitzarentzat egokienak diren espazio, zaintza eta jardueren kudeaketari.

ESPARRU TEORIKOA

Medikuntzaren historiaren zati handi batean, profesionalak datu objektiboetan oinarrituta zehazten zuen zer zen “ona”. Paternalismoak osasun-langileen irizpidea inposatzea zekarren, pazienteak gai horien inguruan erabakitzeke gai ez zela irizita. Pazientearen ordezkari erabakitzen zen, asmo hoberenarekin, hari on egiten saiatuz. Hala ere, gaur egun onartzen da “ona”, definizioz, subjektiboa dela eta batentzat ona denak ez duela zertan beste batentzat izan. Nolanahi ere, badira bizikaltateari buruzko balorazioak ere, oso partekatuak, irizpide intersubjektiboetan oinarrituak.

Horrela, uste dugu ikuspegi paternalista zaharkituek kontraesanetan jartzen dituztela pertsonarentzat funtsezkoak diren zenbait printzipio etiko, hala nola justiziarena. Justua izateak esan nahi du bestea beste gisa errekonozitzea, edo, bestela, maitatu ezin denean errespetatzeko prest egotea. Justiziak irakasten du badela beste bat, nirekin nahasten ez dena, baina berea izateko eskubidea duena. Gizabanako justua halakoa da, bestea bere bestetasunean berretsi eta dagokiona ematen saiatzen den heinean (Pieper, 2012).

Egoiliar askoren kasuan, egoitzara sartzeko arrazoi pertsonalak direla eta, baina, zalantzarik gabe, baita egoitzak iruditeria kolektiboan lortzen joan diren konnotazioengatik ere, egoiliar askorengan sortzen den ezintasun-sentimenduaren ondorioz, bizitza osoa egoitza-eremuaren barruan emateko erabakia hartu dute. Zentroek eta familiek babestutako erabakia da. Haietaz, egoitzara sartzeko —irteera autonomorik gabe— da erabakirik errazena. Zentrotik irtetea aipatzen dugunean egoitza-barrutitik egiten diren irteera guztiengatik ari gara.

San Andres egoitzetatik ikuspegi zaharra atzean utzi eta ahal den neurrian egoiliarrari bere bizitzaren gidaritza itzuli nahi diogu. Irteteko hirugarren pertsonen mende egotea, behar besteko gaitasunak ez ditugunean, justiziaren printzipioaren aurka doa eta bizitza osoa garatzea eragozten du; horrez gain, pertsonaren balio-sentimenduaren zauria areagotzea ere badakar.

Horregatik guztiagatik, pertsona ardatz duen arretaren eremutik —bertan kokatzen da egoitza—, zentrotik ahalik eta modu autonomoenean irtetearen alde egiten da. Autonomiaren aldeko apustua arriskuak handitzearekin lotuta egon daiteke; hori dela eta, funtsezkoa da egoiliar bakoitzaren profila eta beharrak banan-banan ebaluatzea.



LAN-METODOA

Gure irteera-programa irekia da, eta aspalditik etengabe aldatzen ari da. Urteetan zehar, erronka berriak aurkitu ditugu, ikuspuntu berriago eta gaitzaileagoi esker, eta horrenbestez, programak etengabe eguneratzen jarraitzen du. Horretarako, aldizkako bilerak egiten dira talde guztiarekin, filosofia horretan sakontze aldera.

Era berean, konturatu gara lehengo balorazioetan irteerak estandarizatzeko joera zegoela. Gaur egun, etengabe pertsonalizatzen ari diren hainbat neurri landu dira. Prozesu berri honetan, garrantzi berezia hartu du egoiliar bakoitzaren bizitza-historiak eta ezaugarri pertsonalek. Izan ere, egunetik egunera gehiago ezagutu eta lagundu nahi dugu.

Halaber, nahiz eta ez zen hainbeste espero, azken etapetan ikusi dugu egoiliarren zati handi batek ez duela interesik zentrotik familiakorik gabe ateratzeko. Horretarako, entrenamendu-programa berri bat ere prestatu dugu, izan ditzaketen zailtasunak (fisikoak, psikologikoak, etab.) detektatzeko eta horiek konpontzen laguntzeko.

Gure programak eta protokoloak garatzearen bidez, bitartekaritza egin nahi da egoiliarren autonomiaren aldeko apustuaren eta izan ditzaketen eragozpen edo arriskuen artean. Helburu horrekin, arriskuen azterketa egiten da eta sor daitezkeen eragozpenak konpontzeko beharrezko jarraibideak ezartzen dira. Gaingiroki, topatu ditugun behar eta zailtasunen ondoren, gaur egun honako lan-metodo hau garatu dugu:

1. Egoitzak jarduteko **protokolo** bat du, zentroak egingo direla dakien irteeren aurrean eta egingo direla berariaz ez dakien irteeren aurrean. Irteerekin lotutako prozedura osoan hartzen da kontuan.
2. **Elkarriketak, bizitza-historia eta lehentasunak**: lehenik eta behin, elkarriketak egiten dira egoiliarrarekin (eta familiakoekin, kasuaren arabera), haren profila, premiak eta hasierako arriskuak ezagutzeko, baita irteerei dagokienez ere. Ondoren, bere bizitza-historia egiten da, eta, bertan, interesak, lehentasunak eta jarrerak jasotzen dira.
3. Zentroko langile guztiek atzemandako edozein **eskaera, behar edo jarrera** susmagarriren berri emango diete erreferentziazko langileei, ikuskatzaileei, zuzendariei edo talde teknikoei. Ohar horiek kontuan hartzen dira lehenengo eta hurrengo balorazioak egiterakoan eta/edo beharrezko neurriak aplikatu edo aldatzeko.
4. **Balorazio espezifikoak**: teknikari bakoitzak egoiliarren balioespen egokiak egiten ditu, eta, horrela, datu erabilgarriak biltzen dira irteerei dagokienez duten prestasuna eta gaitasuna baloratzeko. Datu horien artean daude balorazio funtzionala, kognitiboa eta emozionala.
5. **Irteeren balorazio** pertsonalizatua eta taldeari jakinaraztea: informazio objektiboa eta egoiliarraren prestasuna jakin ondoren, "irteera-arriskuaren balorazioa" deituriko dokumentu bat prestatzen da. Dokumentu horretan, pertsonaren egoera jasotzen da, irteera autonomoak egiteko aukerari, horrek izan ditzakeen arriskuei eta hartu beharreko neurriei dagokienez. Informazio hori eta ondorengo eguneratzeak zainketen balorazioan eta psikologoak eta terapeuta okupazionalak egoiliar bakoitzari dagokionez egindako balorazioan erregistratzen dira, eta zentroko langileei jakinarazten zaizkie APlaren bileren bidez.
6. Hartu beharreko **neurriak** eta irteerei dagokienez entrenatzea: ondorengo ataletan adostutako eta zehaztutako neurriak aplikatzen dira.
7. **Kasu bereziagoak**, etika-batzordea (Bizkaiko GEHEB): behin baino gehiagotan jo dugu batzordera kontsulta egitera egoiliarren interesen eta horiekin lotutako arriskuen gatazkak konpontzeko.

BIZITZA AUTONOMOAGOA ETA OSOAGOA IZATEKO
IRTEERA-PROGRAMA PERTSONALIZATUAK**SAN ANDRÉS EGOITZA.**
ERAKUNDE KUDEATZAILEA: ANTEPEYA 2002 S.L.

HEDAPENA

1- Irteera autonomoak dituzten egoiliarrak:

Egoitzatik irten nahi izanez gero, nahikoa izango da atea irekitzeko eskatzea. Eguneroko gertakari garrantzitsuren batean (jatorduak, botikak, eta abar) egongo ez bada, gainbegiraleari edo erizainari jakinarazi eta erregistratu egin beharko da. Akordioen bidez baimendutako pertsonen identifikazioa edo giltza-txartela emango zaie.

2- Irteeretan desorientatzeko edo galtzeko arriskua duten egoiliarrak:

Egoiliarren ezaugarrien eta irteeraren arabera, neurriak adostuko dira pertsonarekin, ahalik eta modu autonomoenean eta seguruenean irten ahal dadin:

- Irteerei dagokienez entrenatzea: talde teknikoak programa berri bat garatu eta gauzatu du zentroan, hau da, autonomia eta kanpora irtetea errazteko entrenamendu bat.
- Errazteko eta/edo lokalizatzeko: Telefono mugikorrik badu, egoitzako telefonoa erregistratuko da, bai eta azkar markatzeko metodo bat ere, zalantza bat izanez gero edo laguntza behar izanez gero harremanetan jarri ahal izateko. Zentroak barneko telefono bat ere eman diezaioke. Era berean, egoiliarra identifikatzeko txartela edo zentroko txartel bat (kordoi korporatiboarekin) emateko eta ibilbidea hirugarren pertsonen jakinarazteko gonbita egin ahal zaio. Orientatzeko eta/edo lokalizatzeko GPS sistemaren bat ematea aztertu ahal izango da.
- Erabakiak: kasu batzuetan, akordioak sinatuko dira ezaugarri bereziak eta egoiliarrekin eta/edo ordezkariarekin batera hartutako erabakiak adierazteko. Orobat, elkarguneak adostu ahal izango dira edo irteeren zati bat lagunduta egin ahal izango da. Beste akordio batzuk ordutegien eta ibilbideen ingurukoak dira.
- Irteera-taldeak: kasu horretan, egoiliarri irteerak egiteko gonbita egiten zaio, beste egoiliar batek edo batzuek lagunduta. Harreman ona izango dute aldez aurretik, eta, egoiliar horiek irteeren ebaluazioaren arabera irteera autonomoak egin ditzaketela egiaztatuko da.

3- Laguntzailerik gabe irtetea gomendatuta ez duten egoiliarrak:

- Familiarekin bat egitea: oro har, irteera autonomoak egiteko zailtasunak dituzten egoiliarrek senideen edo lagunen laguntza izaten dute. Zentroak elkarrizketak izaten ditu aholkuak emateko edo ordutegi malguak eskaintzeko beharrak antzematen direnean.
- Familiaren laguntzarik ezean, gizarte-baliabideren bat erabiltzeko aukera aztertzen da; adibidez, boluntariotza. Gaur egun, boluntariotzako hainbat elkarterekin harremanetan jartzen ari gara berriro, egoiliarrei laguntza emate aldera.
- Irteera ez gomendaturik ez izateko neurriak: jokabideak behatzea eta horien jarraipena egitea, arreta galaraztea jarduera esanguratsuen, estimulagarrien, aisialdikoaren eta abarren bidez.

Edozelan ere, egoiliarra luzaroan falta dela hautematen bada, irteeren barne-protokoloan adostutako/zehaztutako neurriak aplikatuko dira (esaterako, mugikorra, senideei deitzea edo larrialdi-taldeak).



EMAITZAK

1- Irteera autonomoak dituzten egoiliarak:

Taldearen pertzepzioan eta eguneroko jardunean, irteera autonomoen aukera normalizatzea lortu da. Familia bozeramaile bihurtzeko aspaldiko ikuspegia kentzea lortzen ari da. Une honetan, irteerekin lotutako erabakiak eta beharrezko neurriak egoiliarrarekin berarekin adostuta hartzen dira, haren autonomia handitu eta bere kontura jardura instrumentalak egin ditzan.

Era berean, zentrorra sartzeko atea irekitzeko giltza-txartelak eta identifikazioak ematen hasi gara; horrela, autonomiaren eta gaikuntzaren autopertzepzioa areagotzen da —halaxe diote—.

2- Irteeretan desorientatzeko edo galtzeko arriskua duten egoiliarak:

Profil horrek jakinarazi gabe egiten dituen irteerak murriztea lortu da, eta, horien ordezt, irteerak modu seguruagoan egin ahal izateko beharrezko neurriak barne hartzen dituztenak ezarri dira.

Egoiliarrarekin ezarritako akordioek aukera ematen dute bakoitzaren eskaerak eta berezitasunak kontuan hartzeko eta kasu bakoitzean bete beharreko neurriak finkatzeko, interesak errespeta daitezen eta, aldi berean, segurtasuna izan dadin.

Garrantzia handia ematen zaio egoiliarra bere erabakien hartzaile izateari, eta horren adierazgarri da neurri berriez baliatu diren pertsonen konfiantza eta gaitasun-sentimendu handiagoak dituztela.

Lokalizatzeko neurriek segurtasuna gehitzen diote prozesuari, eta, behar izanez gero, harremanetan jartzeko eta desorientazio-arriskuak murrizteko behar diren bitartekoak izateko aukera ematen dute.

Irteeretakoa entrenamendua emaitza positiboak ematen ari da, eta, horri esker, teknikariek izangaiak diren egoiliarak detektatu eta zailtasunak gainditu ditzakete. Egoiliar batzuen artean hobekuntza animikoa nabari da, eta beste batzuen artean, berriz, balio-sentimendu handiagoa dutela.

3- Laguntzailerik gabe irtetea gomendatuta ez duten egoiliarak:

Ezarritako protokoloek esker, jaitsi egin dira profil horrek jakinarazi gabe egoitzaetik egindako irteerak.

Bestalde, ordutegi-malgutasunari esker, irteera gehiago egin ahal izan dira ohiko bisita-ordutegietan etortzeko zailtasun handienak dituzten senideekin batera.

Azkenik, etengabe garatzen ari den arloa den aldetik, boluntarioen laguntza ezartzen ari gara. Gure ustez, neurri positiboa da egoitzan horretaz baliatu nahi duten guztientzat.